

# KANALAK

## KOMUNIKAZIO ETA SALMENTA BIDEAK:

Beste hainbat enpresak bezala, informazio-iturri nagusia web orri batean egongo da, eta iragarkiak telebistan transmitituko dira, enpresak herritarren artean duen ospea handitzeko, nolabait esatearren. Produktu horren eskaria handitzeko, produktua azaltzeko iragarkiak behar dira. Era berean, beharrezkoa ikusten dugu gel-enpresei laguntzea, salmenta eta publizitatea hobetzen laguntzeaz gain, sektore bereko enpresei laguntzeko ere.

## BANAKETA KANALAK:

Gure produktuak banatzeko orduan, zuzeneko banaketa-kanal bat erabiltzen dugu, hau da, azken produktua instalatuko den etxebizitzara edo konplexura bidaliko duen ekoizpen-faktoriarena. Diseinuen eta neurrien izapideak fabrikako bulego batzuetan negoziatuko dira, prozesua azkarragoa izan dadin kontsumitzailearentzat zein fabrikatzailearentzat. Eta lehen esan bezala, garraio-enpresekin itunak negoziatuko dira produktuak eramateko.